



Save the Children

PANTAILAREN ATZEAN: HAURTZAROAREN AURKAKO SEXU- INDARKERIA INGURUNE DIGITALEAN

Haurrei Interneten egindako sexu-abusuei
buruzko epaien azterketa Espainian

v. 2026

savethechildren.eus

Aurkibidea

3	<i>Sarrera</i>
4	<i>Online groomingaren ezaugarriak</i>
4	<i>Profilak</i>
6	<i>Prozesu judiziala</i>
8	<i>Barnahuserako sarbidea</i>
9	<i>Gomendioak</i>

1. Sarrera

Teknologiak etengabe aurreratzen eta garatzen doaz, eta, ondorioz, ingurumen digitala gero eta txertatuago dago gure eguneroko bizitzaren ia alderdi guztietan, eremu digitalaren eta analogikoaren artean zen marra ezabatzen doalarik. Gauza bera gertatzen da haurren eta nerabeen kasuan ere. Adin goiztiarretik daude kontaktuan teknologiekin eta Internetekin: 11 urtetik aurrerako haurren %58k ohikotasunez erabiltzen du Internet, eta hirutik batek ohituraz erabiltzen du 10 urte bete baino lehen.¹

Aro digitalak aukera berriak ekarri baditu ere, areagotu egin ditu haurrentzat eta nerabeentzat lehendik ere zeuden arrisku batzuk, indarkeria mota berriak eta zeuden indarkerien berezitasun berriak agertu baitira aldi berean. Arrisku horien artean, ingurune digitalean gertatzen diren indarkeria sexualak nabarmentzen dira, duten larritasunagatik.

Barne Ministerioaren azken datuen arabera, 2024an 1.078 salaketa aurkeztu ziren ingurune digitalean sexu-delituengatik, horien %68,6a neskak zirelarik.² Biktima haur edo nerabe bat duten salaketa horiek delitu mota horretako guztien %84,2 dira.

Alabaina, badakigu datu horiek izozmendiaren punta besterik ez direla: Espainiako 1.008 gazteri egindako inkesta batean, parte hartu zuen %97k erantzun zuen motaren bateko edo besteko indarkeria sexuala jasan izan zuela adingabea zela ingurune digitalean.³ Horietatik %33k sexu asmoko harremanen bat izan zuen heldu batekin ingurune digitalean bere haurtzaro edo nerabezaroan.

Horregatik guztiagatik, Interneteko hurrenganako abusu sexualari –*online grooming*– buruzko datuak ere eguneratu nahi izan ditugu 2021-2022 aldiari dagokion epaien azterketarekin alderatzeko. 2023-2024 aldirako 23 epai aztertu⁴ izan ditugu, 28 *online grooming* kasuri dagozkienak.

1 Save the Children (2024). ***Derechos sin Conexión [Eskubideak Konexiorik gabe].***

2 Barne Ministerioa. Ziberkriminalitatearen atari estatistikoa.

3 Save the Children (2025). ***Redes que atrapan [Harrapatzen duten sareak].***

4 Valentziako Unibertsitateko Tarongers Campuseko Zuzenbide Fakultateko Clinica Juridica per la Justicia Social-ek egindako 2023-2024 aldiaren aurretiazko analisia.

2. Online groomingaren ezaugarriak

Pertsona heldu batek bitarteko elektronikoen bidez jarduera sexual batean parte hartzeko haur edo nerabe batekin harremanetan jartzean egiten den delitu bat da; adibidez, eduki sexuala duten material digitalak lortzea edo eremu digitalean edo fisikoan topaketa sexualak sortzea. Horretarako, hainbat modu erabiltzen dira interakzio horretarako. Baina, abusu sexual «fisikoaren» kasuan bezala, ezaugarri hauek ditu:

- » Konfiantzazko lotura bat ezartzen da, dela amarru, eroskeria edo koakzio bidez, dela beste nortasun baten itxurapean, dela beste modu batera.
- » Biktima isolatu egiten da babesgabe egon dadin eta abusua ez dadin hauteman.
- » Kontrolatzeko egiten diren galdera eta ekintza bidez aztertzen da arriskua, abusua azaleratu ez dadin ziurtatzeko.
- » Erasotzaileak konfiantza sentitzen duenean harremanean sexuaren kontua sartzeko, haustura dago.
- » Sexuarekin zerikusia duen eskaera dago, izan ikus-entzunezko materiala, izan elkartze fisikoak, biak, etab.

Kontaktua haurrak eta nerabeak ohituta dauden espazio guztien bitartez gertatzen da: sare sozialak, bideo-jokoen plataformak, *streaming* kanalak, mezularitzako aplikazioak, etab. Prozesua pixkanakakoa izan ohi bada ere, aldaketak azaldu izan dira jokabide «tradizional» horietan. Izan ere, ikusi da prozesua azkartu egiten dela berehalako eskari sexual eginez, horietako asko ingurune fisikora heldu gabe.

3. Profilak

• Biktimaren profila

Aztertutako kasuen %60,7an, biktima neskatila bat zen eta %39,3an mutiko bat. Biktima gehienak emakumezkoak direla berresten da horrekin, baina abusu fisikoaren arloan neskatila eta mutikoen artean den baino alde txikiagoz. Biktimen batez besteko urtea 13 urte ingurukoa izaten jarraitzen du, eta ez dago alderik mutila ala neska izan.

Adina	2023-2024ko guztizkoa (%)	% neskak	% mutilak
9 urte	%3,6	%0	%100
10 urte	%3,6	%100	%0
11 urte	%7,1	%100	%0
12 urte	%3,6	%100	%0
13 urte	%25	%42,9	%57,1
14 urte	%21,4	%50	%50
15 urte	%25	%57,1	%42,9
16 urte	%10,7	%100	%0
Guztira	%100	%60,7	%39,3

Aztertutako epaien %12an bakarrik izan zen biktima bat baino gehiago, jaitsiera nabarmena gertatu da aurreko aldian nabaritutako joerarekin alderatuta. Hori *grooming*aren usadiozko jarduteko moduari zor zaio, harreman pertsonalizatua baita, biktimarekin harremanetan jarri eta manipulatzeko estrategia moldatuz.

• Erasotzailearen profila

Erasotzailearen profilari dagokionez, berriz, akusatua gizonezko bat zen aztertutako epai guztietan. Kasuen %33,3an ezezagun bat zen. Datu horiek berretsi egiten dute gizonezkoak direla gehienbat ingurune digitaleko erasotzaileak, eta batzuetan ezagunak direla.⁵ Kasuen %78,3an, akusatuek ez zuten aurrekari penalik; kasuen %8,7an, aldiz, ez dago horri buruzko informaziorik.

	2023-2024 (%)	2021-2022 (%)
Ezaguna	%41,7	%49,2
Senidea	%25	%3,3
Ezezaguna	%33,3	%47,5
Guztira	%100	%100

5 Véase Save the Children (2025). [*Redes que atrapan \[Harrapatzen duten sareak\]*](#).

4. Prozesu judiziala

- **Nola agerrarazten da abusua: ama eta biktima**

Kasuen ia erdietan (%43,7), biktimaren amak jarri izan du salaketa agintarien aurrean; amajarraitzen du izaten salatzaile nagusia halako kasuetan. Denak dela, nabarmentzekoa da biktimak zuzenean jarritako salaketen ehuneko esanguratsua (%37,5). Kasuen %12,5ean aitak salatu izan du.

- **Iraupena**

Kasuen erdiek baino gehiagok (%60,7) 3 urte edo gehiago iraun dute, nahiz eta %35,7a urtebetetik bi urtera bitarteko tartean ebatzi zen, eta %14,3an 5 urte baino gehiago iraun zuen.

Iraupena	2023-2024(%)
1-2 urte	%35,7
2-3 urte	%3,6
3-4 urte	%39,3
4-5 urte	%7,1
5 urtetik gora	%14,3
Guztira	%100

Aurreko aldian ikusi genuen prozesu gehienek 3 urte inguru irauten zutela eta %24,6k 5 urte baino gehiago iraun zutela.

- **Biktimaren miaketa**

Abusu sexual «fisikoan» gertatzen den moduan, kasuen %61ean miaketa guardiako/ instrukzioko epaile baten aurrean izan zen, hau da, %26,2 gehiago 2021-2022 aldian baino, baina Ministerio Fiskalak zeregin handiagoa betetzen du Poliziak baino: %23 eta %6, hurrenez hurren. Aurreko aldian, Poliziak egin zuen miaketa kasuen %21,3an. Gainera, ikusi dugu kasuen %65ean biktimari birritan baino gehiagotan hartzen zaiola deklarazioa, eta gertatu zitzaiona 3 bidez kontatzera ere helduz epaiketaren aurretik. Dakigun bezala, biktimak jasandako indarkeria errepikatu behar izateak, prozesu judizial luzeak bezalako beste alderdi batzuekin batera, biktima egoera traumatikoa berriz bizitzera bultzatzen dute, horrek birbiktimizaziorako dakarren arriskuarekin.

- **Frogabideak**

Frogabideei dagokionez, biktimaren deklarazioa da gehien erabiltzen den baliabidea, epaien %96an agertzen da, eta gero dokumentu-froga eta perituen froga psikologikoa dator. *Grooming*aren kasuan, biktimaren deklarazioa epai bakar batean da frogabide bakarra. Biktimaren deklarazioaren eta dokumentu-frogaren uztarketa da frogabide gisara gehien agertzen dena. Abusu sexualean dokumentu-frogak pisu gehiago izateak badu zentzua, elkarrizketak zein irudi eta fitxategiak zerbitzari eta antzekoetan jasota geratzen direlako.

Aurrez eratutako frogari dagokionez, %35ean ez da ageri eta ez da aipatzen. Hala ere, kasuen %65ean egin zela nabarmentzen da.

Martaren istorioa

Marta Lehen Hezkuntzako 6. maila egiten ari zen bere ikastetxeko musika irakasle zena, Victor, Instagram bidez harekin harremanetan jarri zenean profil faltsu batekin. Neskatilearekin harreman birtual bat hasi zuen bere benetako nortasuna eta itxura ezkutatzuz, laguntza emozionala ematen eta bere arazoak konpontzen laguntzen zionaren itxurapean, eta izaera sexualeko argazki eta bideoak eskatzen hasi zitzaion gero. Victorrek ondo baino hobeto zekien Martak familian zuen egoera arazotsua, eta haren urrakortasunaz baliatu zen.

Martak hainbat bidez eskatu ondoren irakasleak, azkenik, bere benetako nortasuna azaldu zionean ikastetxean, neska zur eta lur geratu zen. Une horretatik aurrera, abusuak maila fisikoan gertatu ziren hainbat alditan, ikastetxe barruan nahiz kanpoan, eta batzuetan indarkeria fisikoaz ere baliatuta. Martak azkenean blokeatu egin zuen Victor sare sozialetan eta ikasturtea berrabiarazi zenean gertatutakoa kontatu zuen ikastetxean. Martak agintarien aurrean salatu zuen gertatutakoa, aitak lagundurik.

Epaiak ebatzi zuen Victor nagusitasun egoeraz baliatu zela abusuak egiteko, 45 urte zituelako egin zituenean, biktimaren irakasle zelako eta haren tutoretza zuelako ikastetxean. Prozesuak 3 urte iraun zuen, eta espetxe-zigorra jaso zuen teknologien bidez era jarraituen abusu sexualak egiteagatik.

- **Kautelazko babes-neurriak**

Kasuen %42an ez da aipatzen edo ez da jaso kautelazko neurriak aplikatzen direnik. Aipatzen diren kasuetan, baldintzapeko askatasuna da –bakarrik edo beste batzuekin

batera- gehien erabilitako kautelazko neurria (%26), eta urruntze agindua daraman behin-behineko espetxeratzea gero (%10). Hala, joeran aldaketa egon da 2021-2022 aldiaren aldean, behin-behineko espetxeratzea izan baitzen gehien erabilitako neurria.

- **Kondenak eta absoluzioak, neurriak eta zigorrak**

Kasuen %65,2an epaiak zigorra ezarri zuen, eta jaitsiera nabarmena da hori 2021-2022 aldian zigorrak ezarri ziren %96,7 kasurekin alderatuta. Absoluzioak, batez ere, era penalean eskatzen diren elementu guztiak ez zirelako ematen gertatu ziren, eta beste batzuetan, berriz, frogarik ez zelako. Espetxeratzea ezarri zuten kasuen %71,4an, zigorra 3 urtetik gorakoa izan zen. Urtebetetik bi urtera bitarteko zigorrak %14,3 izan ziren. Adingabeekin kontaktuan egotea eskatzen duten lanbide edo karguetan lan egiteko ez-gaitzearen zigor erantsia kasurik gehienetan aplikatu da, baina badira oraindik hori ezartzen ez duten epaiak, nahiz eta derrigorrezkoa izan HNIBBILOK Kode Penalean ezarri zuen aldaketaren ondoren.

5. *Barnahuserako sarbidea*

Barnahus eredua ingurune fisikoetako indarkeria sexualaren kasuei heltzeko eredu gisa sortu zen, alabaina funtsezko baliabide bat da haurren eta nerabeen kontra ingurune digitalean gertatzen diren indarkeria sexualeko kasuei aurre egiteko, interes gorenean ardazturik den arreta espezializatu eta koordinatua bermatzen duelako.

*Grooming*a haurrenganako abusu sexual mota bat da, eta beraz, *Barnahus* ereduaren oinarritzen diren lege-esparruetan jasota den haurren eta nerabeenganako indarkeria sexual mota bat da.⁶

Kalitate-estandarren barruko «Talde objektibo inklusiboa» izeneko 3. estandarraren arabera,⁷ *Barnahus* ereduak edozein motako indarkeriaren biktima edo lekuko izan diren haurrak artatu behar ditu.

Arau-esparruek haurrenganako sexu-abusu eta -esplotazioaren kontzeptupean biltzen diren mota guztietako indarkeria sexualak aitortzen dituzte, kontuan hartu gabe horiek ingurune fisikoan ala digitalean gertatu diren.

Era horretan, *grooming*aren biktima izan diren haur guztiak *Barnahuserako eskubidea dute*. Katalunian, *Barnahusek* online bidezko indarkeria sexualaren kasuak ere artatzen dituzte dagoeneko.

6 HEBren 19. artikulua eta CRCren 13. Ohar Orokorra (2011): «indarkeria fisiko edo mental, lesio eta abusu, zabarkeria edo tratu zabarr, tratu txar edo esplotazio mota guztiak, sexu-abusua barne».

7 Hemen [*ikusi*](#).

6. Gomendioak

Save the Childrenen urteak daramatzagu haurren eta nerabeen kontrako indarkerian espezializatutako justizia bat bultzatzen eta gomendatzen. Espezializazio horrek haurren eta nerabeen eskubideak erdigunean jartzen dituen arreta egoki eta eraginkor bat izan behar du helburu, HNIBBILOn jasotako agindu eta eskubideekin bat etorrita.

Espezializazio hori Justizia Zerbitzu Publikoaren eraginkortasunerako neurriei buruzko urtarilaren 2ko 1/2025 Lege Organikoan garatu da, haurren eta nerabeen kontrako indarkerian espezializatutako sekzioak sortuz, eta duela gutxiko 422/2025 EDrekin, zeinak hiru sekzioen eraketa besterik ez baitu aurreikusten, arazoari erantzuna emateko hasiera denekoan kanpo uzten direlarik biktima izan diren haur asko.

Horrenbestez, estatu mailan legegintza arloan aurrerapenak eman badira ere – besteak beste, aipatu legea eta hori garatzen duen errege-dekretua –, erronka batzuk gauzatzeke daude oraindik haurren mailan benetan egongo den justizia-eredu bat osorik eta eraginkortasunez ezartzeko. Hori dela eta, beharrezkoa da hau:

- 1. Haurren eta nerabeen kontrako indarkeriako aski sekzio bermatzea hasiera-hasieratik horiek abiarazten direnean.** Lurralde nazional osorako hiru sekzio besterik ez sortuta, ez da inolaz ere nahikoa haurrei eta nerabeei eragiten dieten indarkeria mota guztiei erantzun espezializatu bat ematen zaiela ziurtatzeko, kasu gehienak haurrenganako ikuspegiak ez duten instrukzio-sekzioen eskuetan geratzen direlarik. Sekzio horiek pixkana-pixkana ezarriz joango badira ere, inplementazio handinahitsuago bat behar da hasieratik HNIBBILOn ezartzen diren konpromisoak betetzeko.
- 2. Haur eta nerabeen kontrako indarkerian espezializatutako fiskaltzak sortzea,** haur bat biktima den prozesu guztietan parte hartuko dutenak, adingabeenetatik (babesa eta adingabe arau-hausleak) bereizita edo plazen espezializazio bidez. Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoaren erreformak funtsezko aukera bat dakar fiskaltza horien aurreikuspena ezartzeko bere 18.3 artikuluan.
- 3. Eskumen edo koordinazio kontuak argitzea** familiaren espezialitate zibilarren, emakumeenganako indarkeriaren eta adingabeen sekzioen artean. Batik bat, neskatilen kontrako indarkeria sexualaren kasuak (ingurune digitalean barne) haurren eta nerabeen kontrako indarkeriaren sekzioen esku geratzen direla bermatu behar da, emakumeenganako indarkeriaren kontrako sekzioen ordez, neskatilek emakume helduen bestelako behar zehatz batzuk dituztelako, euren adina, garapena, indarkeria mota edo erasotzailearekin den harreman direla-eta. Kontrakoak tratatu ezberdina sortuko luke neskatilen eta mutikoen artean, horien kasuak mota bereko indarkeriarenak izan arren sekzio ezberdinek izapidetuko lituzketelako.

4. **Espezializazioa haur eta nerabeen kasuetan esku hartzen duten instantzia zibil guztietara zabaltzea**, Auzitegi Gorena, Auzitegi Nazionala, Justizia Auzitegi Nagusiak eta Instantziako Auzitegi Zentrala barne direla.
5. **Haurren kontrako indarkerian epaile eta magistratuei lagunduko dieten talde teknikoak sortzea**, bai haurren eta nerabeen kontrako indarkeriaren sekzioetan, bai beste sekzio batzuetan, baldin horien esku bada hurrei eta nerabeei eragiten dien kasu bateko eskumena. Talde horiek funtsezkoak dira beren diziplina anitzeko izaeragatik eta joera kognitibo batzuk aurreikusten laguntzen dutelako; era berean, laguntza teknikoa eskaintzen dute epaileei berez ez dagozkien kontuetan.
6. **Eragile juridiko guztien prestakuntza hasieratiko nola jarraitua ziurtatzea**, epaile eta magistratuez harago. Prestakuntza horiek berariaz jaso behar dute hurrei eta nerabeei eragiten dieten indarkeria digitaleko erak, bai eta horien ondorioak eta eraginak ere.
7. **Prestakuntzek espezializazio horri fokua eta mamia erantsiko dioten funtsezko edukiak biltzen dituztela bermatzea**, honako gai hauek bezalakoak jorratuz: HEBek eta HNIBBILOk hurrei eta nerabeei aitortzen dizkieten funtsezko eskubideak; interes gorenaren zehaztapena; entzuna izateko eskubidea eta giltzarri diren auzibidezko erabakietan hori aplikatzea; HNIBBILON jasotzen diren indarkeria erak; tratu ona eta ingurune seguruak sortzea; indarkeriak hurrengan duen inpaktua eta birbiktimizazioarekin lotutako gaiak; genero-ikuspegia; eta, justizia egokitu eta irisgarri baterako funtsezko elementuak.
8. **Barnahus eredua zabaltzea eta sendotzea**, justizia-eredu espezializatuan txertatuta, ingurune digitaleko indarkeria sexualaren kasuak ere barne hartuko dituela ziurtatuz, ingurune horretan biktima izan diren haur eta nerabeen beharretara egokitutako jarduketa koordinatu nola espezializatu bat bermatzeko, bigarren mailako biktimizazioa murriztuz. Proiektu-pilotuek hurrenganako indarkeria sexualaren kasuei helduz hasi behar dute, eta baliabideak iritsi ahala joango dira zabaltzen, indarkeria digitalari bereziki erreparatuz.
9. **Interes Gorenaren ebaluazio formala**. Funtsezkoa da interes gorenari buruzko ebaluazio formal, banakatu nola estandarizatu bat ezartzea praktika judizialean, hori osatzen duten elementu guztiak aztertuko dituen eta kasu bakoitzean egiazki aplikatzen dela bermatuko duena. Horretarako, auzibide batean parte hartzen duten eragile guztiek prestakuntza jaso behar dute hori zertan datzan, horren analisirako puntu nagusiak zein diren eta hori nola burutzen den jakiteko.

- 10. Interes Gorenaren ebaluazio formal.** Funtsezkoa da interes gorenari buruzko ebaluazio formal, banakatu nola estandarizatu bat ezartzea praktika judizialean, hori osatzen duten elementu guztiak aztertuko dituen eta kasu bakoitzean egiazki aplikatzen dela bermatuko duena. Horretarako, auzibide batean parte hartzen duten eragile guztiek prestakuntza jaso behar dute hori zertan datzan, horren analisirako puntu nagusiak zein diren eta hori nola burutzen den jakiteko.

Lauraren istorioa

16 urteko neskato adingabe bat erabiltzaile heldu batekin jarri zen harremanetan marihuana eskatzeko. Erabiltzaileak erantzun zion neskak bideo-dei baten bidez ekintza sexual batzuk egitearen truke emango ziola, eta neskak onartu egin zuen. Hori egin ondoren, pertsona heldu hark esan zion nerabeak egin zuena jasotzen zuten pantaila-irudiak zituela, eta izaera sexualeko bideo-deiekin ez bazuen jarraitzen zabaldu egingo zituela pantaila-irudi haiek, neskaren aurpegia agertzen zela, gainera.

Epaiak dio gertatutakoak hainbat delitu jasotzen zituela: adingabeei Internet bidez ekintza sexualak proposatzea, adingabeei eraso sexuala egitea, eta mehatxuak egitea. Adibide horrek, hortaz, erakusten du pantaila baten bidez gertatzen diren ekintzak ere nola izan daitezkeen haurrenganako eraso sexualak, eta abusuaren bidez lortutako material hori nola jarrai daitezkeen erabiltzen eraso batetik bestera.

Gainera, epaiak ezartzen du biktimaren eta ikertuaren arteko lehen harremana neskak eragin izanak ez diela larritasunik kentzen egintzei. Aitzitik, adinean den alde handia tarteko, neskaren urrakortasun areagotua erakusten du, eta akusatua nola baliatu zen horretaz.

- 11. Internet era seguru eta arduratsuan erabiltzeko heziketa, heziketa afektibo-sexual integral batekin batera** (arautua adin goiztiarretik eta egokitua heziketa-fase bakoitzera), haurren eta nerabeen sozializazioaren eta ingurune digitalaren berezitasunak kontuan hartuta, etapa bakoitzean giltzarri diren alderdi batzuk jorratuz, hala nola: baimena ematea, pribatutasuna, nortasun digitalaren kudeaketa, esparru horretan jasaten diren presioak, eta ingurune digitaletan muga osasungarriak ezartzeko tresnak.

12. Plataforma eta enpresa digitalen erantzukizuna sustatzera zuzendutako neurriak haurren eta nerabeen babesarekin konpromiso irmoa dela ziurtatze aldera, ziurtatuz ikuskatzeko, zehapenerako eta kontuak emateko mekanismo eraginkorrak daudela, ingurune digitaletan ematen den indarkeria sexualaren aurrean hori prebenitzeko, hautemateko, jarduteko eta agintariekin kolaboratzeko duten erantzukizuna bermatuko dutenak. Ingurune digitaletan adingabeak babesteko egun izapidetzen ari diren Lege Organikoaren Proiektuak estatu mailako lege-esparrua moldatzeko eta indartzeko abagunea eskaintzen du.

